

Ipuin herrikoi bat aztertu nuen liburu honetan: *Mari-xor* euskal *Cenicienta*. Helburua? Tradizioar en inguruan hausnartzea.

Gizarte eta Kultur Antropologia ikasketak egiten ari nintzela egin nuen azterketa. Gatzaren sinbologia eta gizarte egitura ez ezik, ipuineko emakume eta gizonen irudiak aztertu nituen, eta ipuinean agertzen diren pertsonaia guztien arteko harremanen marrak egiten ere saiatu nintzen. Zer esateko? Etxea, jabearena ez ezik, biziartzen duenarena ere badela, hots, etxea aitarena eta amarena dela, edo, beste modu batera esanda, etxea (gizartea) andrazkoena eta gizezkoena dela.

Liburua EMAKUNDEren laguntzaz atera nuen, 2005ean.

46. orritik 55. era bitartean aurki dezakezue Mari-xorren bertsio originala [115-125]. Paperezko bertsioan ipuinaren orri bat falta da, ordea [117.a]. Bertsio digitalean dagokion lekuan txertatu dugu, orrialdeen ordena mantenduta.

*Mari-xor* ipuina grafia berrituaz irakurri nahi izanez gero, jo ezazue Jose Arratibelen [Ipuin zaharrak](#) (EREIN, 1995) liburura.